

## MINTZOLA

Ahoa Bete Hots jardunaldiak  
2014ko uztailaren 2, 3 eta 4an

### MEMORIAREN BALIOA TRANSMISIOAN

Xabier Amuriza

Transmisioa, bertsolaritzan eta edozertan, alde askotatik jorra daiteke. Diskurtso inkonkretuekin nekatu samar nago eta neure esperientziatik joko dut, zertzelada batzuk emanaz eta memorian zentratuz.

*Hizketan baino lehenago kantuan*

Umetan, hizketan hasteko adinean, atzerapen bat ekarri nuen. Ez nuen ahorik irekitzen, hitz egiteko. Dena zen mmm! eta mmm! Denbora aurrera zihoan, eta gure ama larrituak medikurik mediku eta santurik santu erabili ninduen: San Felizisimo, Errigoitiko santua, Urkiolako San Antonio... Gure aita fantasiosoak, berak ere aho itxian hitz egiten zidan, hura hizketaren aurre-ipuina bat bailitzan edo. Gure ama sutzen zuen horrek, zioela: *Zeuk be holan egiten badeutsazu, zelan ikasiko dau umeak berbetan?* Aro hartako pasarte asko dauzkat gogoan. Amak medikuagana eroan ninduen, esaterako. Medikua mahai gainean nire begientzat liluragarri ziren tresnatxoak zeuden, denak zilar kolore bizikoak. Medikua nola hitz egiten nuen jakin nahi zuen, baina nik haren aurrean ez nioen ezer. Irten zen gelatik (ate ostean ezkutatu zen), eta amak mahai gaineko artaziak seinalatuz, galdetu zidan: *Hau zer da?* Eta nik erantzun: *mhmhmh!* Medikua berehala irten zen ate ostetik, esanez: *Argi dago! Egingo dau. Honena alperkeria da.* Mahai gaineko tresnatxoak ikusten ari naiz oraintxe ere. Medikua erantzunak gure ama ez zuen askorik lasaitu, eta jarraitu zuen santuekin. Egun batez –kontatzen zuen gero amak–, etxe inguruan kantuan entzun ninduen. *Berbetan ez, eta kantuan bai?* Eta kantatzeko, ahoa irekitzen ei nuen. Orduantxe zabaldu zitzaion zerua gure amari, zioela: *Kantetako zabaltzen badau, berbetarako be egingo dau.* Hauxe kantatzen nuen:

*Ezkonduta eta ezkongai  
guztiok ondo bizi nahi  
dirua dagonian jai.  
Familiako buruzagiak  
neke gehiago ere bai  
lehen ardoa edan lasai  
orain urrutitik usai  
etxian nago andrezai.*

Bertso hau eta kantatzen nituen jarraiko beste bi Xenpelarrenak ziren ez nuen jakin 18 urtera arte. Aitak kantatzen zituen eta irakatsi zizkidan, beste bertso, koplak eta kanta batzuekin batera. Xenpelarrenek erritmoa ere aproposa zuten haur batentzat, eta seguruenik, nire memorian lehenen txertatu zirenetakoak izango dira.

### *Bota bertso bat!*

Zazpi urte egin nituen egunean (orain batzuek urteak “bete” egiten dituzte, baina beste askok “egin” egiten ditugu), Bizkargiko erromeriatik bueltan, neure lehen saioa egin nuen (eragin zidaten), Autzaganeko tabernan, Joseparenean. Gure aita nonahi kantari ibiltzen zen, eta han ere bai. Bere prakapean nengoela, norbaitek heldu eta mostradore gainera jaso ninduen, hoska: *Aupa, Jabi! Hi hobea haz eta emon egurra aitari!* Gure aita kantari ona zen, baina bertso kontuan ez zion ardura onak zein txarrak kantatu. Berak esan, berak barre egin, eta denak berari barreka jartzen zituen. Amaitu zuen nola-halako bertso bat, eta ni jarraitu beharrean aurkitu nintzen. Aitak jarraitu zuen, eta nik berriz ekin behar. Eta hala ez dakit zenbat. Saio hura Dokumentazio Zentroan badago, entzutekoa izango da. “Kartzelas” ezizeneko beste sasi-bertsolari batek txapela pasatu zuen, eta diru mordoa batu zen: 14 pezeta, 8 txakur handi eta 7 zazpi txakur txiki. Hura dirutza bat zen orduan. Eta dena neuretzat! Dirua pozik hartu nuen, baina saio haren ondorioa traumatikoa izan zen. “Torreburuko mutiko bertsolaria” baitzen. Gero edonon, edozein jai girotan, edozein gonbidatu bazkaritan, une bat heltzen zen entzun beharrekoa: *“Bota bertso bat!”*. Esku-bonba bat oinetara jaustea lez. Mahai guztietatik, zoko arriskutsu guztietatik, artean pozik egoten nintzen leku guztietatik, ihesian eta ezkututzen hasi nintzen, *“bota bertso bat!”* fatidiko hura entzuteko beldurrez. Batzuetan, unea txarto kalkulatzeko nuen, eta harrapatzen ninduten.

Hamaika urteagaz, karmeldarren komentuan sartu nintzen. “Nintzen” edo. Fraile bat eskolatik pasatzen zen, maistra ere oso fedetsua zen, “nork gura dau fraile etorri?”, eskua jaso nuen, eta “Torreburuko mutikoa fraile doala”. Denek eta denean ondo hartzen ninduten, gauza gozoak emanez, eta niretzat mahuka bat zen hura, pentsatzen nuela: *Hemen fraile hoala esatea lakorik ez jagok, danen begiona izateko*. Azkenean, joateko ordua iritsi egin zen, eta orduantxe larri! Nik ez bainuen uste fraile joatea benetan izango zenik. Baina baietza denean zabaldua baitzen, ez nintzen ausartu ezetz esaten. Komentuan, ehundik gora mutiko, lotegi bakarrean. Ohe ilara luzeak, ohaburuak elkar jotzen, eta pasillo estuak bitartean. Gauez, argiak noiz itzaliko egoten nintzen, ezkutuan negar egiteko. Tristura haren barruan, banuen kontsolapen bat, handia eta sakona, pentsatzen bainuen: *Hemen behintzat inork ez jeustak esango “bota bertso bat!”*.

Ez nuen guztiz asmatu. Gabon-oporrek komentuan bertan egiten ziren, eta gabon-afarian, janari gozoagoz gainera, afalostean animazio saio bat eratu zen, ausartzen zirenek zekitena eginez. Nik ez neukan ezer egiteko asmorik, eta hara non fraile batek iragartzen duen: *Hemen bada bertsolari bat, eta hauxe litzateke une aparta, erakustaldi bat emateko. Ezta, Amuriza?* Susto ikaragarria hartu nuen. Mutiko guztiak, ohiko ahobatasun ulukariz, aupaka hasi ziren, eta ez nuen izan beste erremediorik. *Hemen ere ezin malefiziotik libratu!* Geroztik, falta zen urte zatia (luzea oraindik) beldur horretan igaro nuen, baina ez zen izan bigarren sustorik. Hurrengo urtean, seminariora aldatu nintzen (ninduten), eta bai. Beste guztian itomen handiagoa aurkitu banuen ere, bertso kontuan bake santua izan zen. Hantxe bai ez zegoela arriskurik *bota bertso bat* entzuteko!

### *Bakar orduak kantuz*

Bai frailetzako urtea, bai seminarioko lehen urteak, etxerantz begira igaro nituen. Derioko seminariotik, Bizkargi tontorra eta harago Oiz ikusten ziren, biak urrun. Mendi haien erdibide inguruan, gure etxea zegoen. Ez zen ikusten, baina banekien hantxe zegoela, eta ahal nuen guztian, harantz begiratzen nuen. Zer zegoen han? Etxea, etxeokak, animaliak, lurrak, herri bat, hizkuntza bat, eta... kantak eta bertsoak ere bai! Oraindik aldean neroan umetako trauma hark (“bota bertso bat!”) ez zuen eragotzi nire memorian zegoen guztia maita eta desia nezan. Seminarioko ordu luze eta isil asko memoria hartan zeuden kanta eta bertsoekin betetzen nituen. Ez, oraindik, kontzientziaz edo errebellidiaz, baizik soil-soilik, etxeminez. Udako oporretan etxera nindoanean ere, ordu bakarti eta luze asko igaro behar izaten nituen, mendi-etxe nahiko bakarti hartan. Batez ere, behiak zaintzeko ordu luze eta gogaikarrietan. Ba, denbora hura betetzeko entretenigarri bat zen nekizkien kanta eta bertso guztiak ilaran kantatzea, zuhaitz punta batera igota bazen, hobe. Bakarrik dabilen umeak zerbait asmatu behar du ez aspertzeko, eta nire baliabide bat memorian zegoen guztia airatzea zen. Errepertorioa amaitzen zenean, beste inbentzio batera. Hala ere, denbora ezin-betea gertatzen bazen, berriz errepertiora. Hori guztia ez nuen egiten ezerean kontzientziaz, entretenigarri baten premia baizik. Zorionez, memoria nahiko bete neukan, eta hortik etekin handia ateratzen nuen. Hitzaldi honetan, zuen aurrean defendatu nahi dudana mezua lehen aldiz formulatuko dut, honela: *Memoria eduki onez betetzea oso baliotsua da, adin guztietan.*

### *Piztualdia*

Seminarioko lehen urteak ilunak eta indefentsoak izan baziren, hamasei bat urtegaz, piztualdia hasi zen. Konzientzia hartzen hasi ginen, bai norberaren, bai hizkuntzaren, bai herri zapaldu baten. Hori guztia adinaren errebellidari lotua. Nik etxera begira nerraien, eta lehen nekusen dena nekusen bertan: etxeokak, animaliak, natura, herri bat, mundura begirada bat, eta tartean, euskara eta bertsoa. Baina lehenago tristura bakarrik zemaiana orain borrokagai bihurtu zen. Erreakzio orokor bat izan zen.

“Euskara eta bertsoa” esan dut, baina nire (eta beste askoren) motibazio nagusia euskara zen. Hizkuntza zen zapalkuntza kulturalaren eta eskubideen kontzientziaren objektu nagusia. Bertsoa euskaran ibiltzeko modu bat gehiago zen. Nire buruan, ordea, bertsoa zebilen gehien. Zergatik? Arrazoia sinplea bezain esanguratsua da: *buruz erraz ikasten zirelako*. Euskarazko prosa gehiago irakurtzen nuen bertsoak baino, baina burura askoz arinago pasatzen ziren bertsoak. Egia esan, prosazko testuak buruz ikasten saiatu ere ez nintzen gehiegi egiten. Ez baita erraza ere. Bertsoak, ordea, on samarrak badira, berehala ikasten dira. Seminarioan, ordu luze eta isil asko zeuden. Komunitate oso bat lekutik lekura aldatzeko bakarrik, ordu laurdenetik gora behar zen, eta hori egunean hainbat aldiz gertatzen zen. Bidean, arrosarioa erreztatzen joatea kasik derrigorra zen. Nik arrosarioa eskuetan eroan ohi nuen, ikusteko moduan, baina ale bakoitzean bertso bat pasatzen nuen. Jatorduak ere isilik egin behar ziren, eta eliz orduak, asko eta luzeak, zer esanik ere ez. Ordubeteko meditazioak eta. Nire bizitzako askatasun-urrats handiena askatasun mentala izan zen: *Inork ezin du jakin ni zer pentsatzen ari naizen*. Jainkoak jakin behar zuen, noski, baina Jainkoagaz ondo konpontzeko moduak aise aurkitzen nituen. Hala, denbora haiek guztiak mentalki ondo betetzeko baliabide bikaina ziren bertsoak, debozio itxura osoz. Ehundaka eta ehundaka bertso zebiltzan nire buruan, bai hizkuntz sentimendu bati erantzunez, bai batez ere

seminarioko ordu ilunak atseginez betetzeko helburu praktikoz. Hori ez zegoen prosan egiterik, baina bertsoekin erraz-erraza zen.

Azken urteetan, bertso-eskola moduko bat ere osatu genuen seminarioan, baina hori beste kontu bat da. Helduen bertso-eskolan, bertsoaren aldeko sentimenduaren eta zaletasunaren transmisioa emanda dator. Baita, inoiz, neurri bateko trebetasuna ere. Horretara datorren batengan, transmisioaren urrats nagusiak gainditurik datoz, nik hemen markatu nahi dudan eremuan, behintzat. Helduen bertso-eskolak transmisioaren adar aparteko bat dira.

## ONDORIOAK

Neure esperientzia pertsonaletik (eta bertso-eskoletan izan dudan esperientzia luzetik), ondorio batzuk argi samar ikusten ditut:

1.- Edozein adimenek badu sen edo ahalmen orokor bat, arte guztiak gustatzekoa. Kasu honetan, hizkuntzan oinarritzen diren jardun espresibo guztiak. Arte mota bat lantzen duenari zail da beste arte batzuk ez gustatzea. Gutxienez, berari gustatzen zaion arte motaren inguru hurbilekoak.

2.- Bertsolaritzak –metodotik aparte– baditu elementu atraktiboak edozein adimenentzat. Lehenik, hizkuntza hiztun guztien tresna da (hizkuntza horren barruan, noski). Zail da hitz egiten duzun hizkuntzaganako sentimendu positiborik ez izatea. Hizkuntzaren barruan, bertsoak errima, neurria eta erritmoa (musika) eransten ditu. Zail da hiru elementuok, neurriren batean, edozein hiztuni ez gustatzea. Eta gustatzekoak direnez, horixe da bertsoaren arrakastaren arrazoi zati handi bat.

3.- Ahalmen eta gustu orokorrak horrela izanik, *borondate bat* ere behar da. Ezin da ezer transmititu, hartzailleak jaso nahi ez badu. Horrek muga erabakiorra dirudi, baina ez da dirudien beste. Bertsoari buruz, zaila da uko esplizitua, kontzientea gertatzea, hartzarozan behintzat. Oro har, hartzarozan ez dago (arteez ari gara) ezeren kontrako aurreiritzi edo posizio ukatzailearik. Gustukoen jolasa izango da, noski, eta desgustukoen, lanak egin beharra, baina hortik aurrera, haur baten buruan, onespenean edo gaitzespenen koadroa taxutzeke dago. Nerabezarozan beste kontu batzuk hasten dira.

4.- Aurrekoak horrela, transmisioa zera litzateke: adimen bati objektu bat parean jarri. Aurrez aurre. Bertsoa bezala, beste jarduera guztiak. Hainbeste urtetako ikasketetan, arte mota guztientzat egon behar luke aukera bat, une bat, toki bat. Bertsoa ez da derrigor bat, oinarritzko aritmetika izan daitekeenez. Baina aukeran jarritz gero (eta mirari handi gabe), proportzio bati gustatzeko probabilitate handia dago.

Aukera horrek ez du, ondo sartzeko, “jolasgarri” izan beharrik. Haurrentzat (eta denentzat), ahalegina edo lana sekula ez da izango “jolas bat”. Baina merezi du ahalegin hori eragitea. Haur baten memorian eduki on batzuk sartzen badira (argi esanda, ikasazten bazaizkie), eduki horiek maiz berrituko dira haren buruan. Ez denak, baina bai asko. Memoriak berak egingo du selekzioa. Izan daiteke dena ahaztea ere, baina

probabilitate handia dago eduki on horietako asko (edo batzuk) hantxe gelditzeko memorian, bizi guztirako, oroitzapen atsegin bat lez bakarrik bada ere.

## HAURTZAROA ETA IKASAROA

Nire kasuan ezin argiago dago, baina uste dut printzipio orokortzat baieztekoa dela: haurtzaroa da, edozertan, erreferentziarik indartsuena da. Han ikasi, ikusi, bizi izan genuena, huraxe da, gero ere, gure memorian bizien dabilena. Ni seminariotik lez, beti gaude nonbaitetik etxera begira. Haurtzarora begira.

Haurtzaroan eta, oro har, ikasaroan, dena ez da (gehiena ere ez, sarritan) gogoz egiten. Are gutxiago, saiatu gabe. Eragile handi bat derrigorra da. Derrigorren barruan ere graduak daude, noski, baina haur batek edo ikasle gazte batek jolasa edo lagunartea beti izango du nahiago ikasketa baino. Hortik sor daiteke saiakera bat, ikasketa jolas moduan eratzekoa. Saiakera okerra eta frustrantea. Ahalegina ahalegin moduan eta jolasa jolas moduan aurkeztu behar dira. Metodo onak ahaleginaren aldeko arrazoiak eta, neurri batean, gustua ere transmititu behar ditu, baina ahalegina (lana) jolas bihurtu nahi izatea metodo sinpatikoa izan daiteke, baina ez efizientea.

Derrigorren barruan, kontrako faktoreak ere izan daitezke, eta izaten dira. Nire kasuan, herriko eskola eta seminarioa (haurtzaroa eta nerabezaroa, batez ere), dena izan zen derrigor bat. Metodoek ere pedagogiatik baino gehiago zeukaten diziplina militarretik. Hala ere, asko izan dira ondorio on eta argiak:

– Nire kasuan, haurtzaroko trauma handi batek (“bota bertso bat”) ez zuen inondik ere ekarri betirako ukorik. Beharbada, denborarekin, alderantzizko eragina izango zuen.

– Txartoen literaturan ibili nintzen, irakasle ahohandi baten erruz. Bai haregaz eta bai beste irakasle batzuekin, testu asko ikasi behar izan genuen buruz. Adibidez:

*Recuerde el alma dormida  
avive el seso y despierte  
contemplando  
cómo se pasa la vida  
cómo se viene la muerte  
tan callando.*

Oroit bedi arima lokartua  
biz beza garuna eta itzar  
ikusirik  
zelan doan bizitza  
zelan datorren heriotza  
hain isilik.

Jorge Manriqueren *Coplas a la muerte de su padre*. Poema osoa buruz ikasi genuen, batzuek behintzat. Gero, hogeita bi urte gaz, euskarara itzultzen saiatu nintzen, errima sistema eta metrika berdinez. Burua apurtu nuen, baina ezin. Amore eman behar izan nuen. Orduan ez nintzen ohartu zergatik, baina orain badakit. Nahi baduzue, irakurri beharko dituzue: *Euskara batuaren bigarren jaiotza* eta *Euskararen desabantailak bertsogintzarako* atala, *Hitzaren kirol nazionala* izeneko liburuan. Manriqueren koplak lez, beste poema asko ikasi genituen.

– Latina nekosoa, astuna zen. Testu asko ikasi genituen buruz. Adibidez:

*Et jam summa procul villarum culmina fumant  
majoresque cadunt altis de montibus umbrae.* (Virgilio)

Eta han urrunean baserrien teilatu gainak ketan daude  
eta geroz itzal luzeagoak jausten dira mendi goretatik.

*Beatus ille qui procul negotiis,  
ut prisca gens mortalium  
paterna rura bobus exercet suis,  
solutus omni fenore,  
neque excitatur classico meles truci  
neque horret iratum mare,  
forumque vitat et superba civium  
potentiorum limina.* (Horazio)

Dohatsua hura, negozioetatik urrun  
antzinako jende hilkorak lez  
aitaren lurak bere idiekin lantzen  
dituena,  
zor guztietatik libre!  
Eta itzartzen ez dena soldaduak lez  
gerra-dei beldurgarritz  
eta itsaso haserrearen beldur ez dena  
eta foroa eta ahaltsuen jauregi harroak  
saihesten dituena.

Latin klasikoko poesian ez zegoen errimarik. Arauak ez dauzkat gogoan, baina silabaren (bokalen) balio ezberdinak eta azentuaren eta neurriaren lege zorrotzak bide, erritmo ikusgarriak sortzen ziren. Danteren *Divina comedia*-ko pasarteak ere ikasi genituen:

*Per me si va ne la città dolente  
per me si va ne l'eterno dolore  
per me si va tra la perduta gente.*

Nigandik joaten da hiri mindura  
nigandik joaten da betiko saminera  
nigandik joaten da gizagalduen artera.

– Prosatik, askoz gutxiago ikasi genuen buruz, edo ikasarazi ziguten. Oso gutxi. Prosa, izan ere, gorago aipatu bezala, askoz zailago da buruz ikasten, antzerkian-edo dabilena ez bada. Batzuk ikasi genituen, hala ere. Adibidez:

*Quousque tandem, Catilina, abutere patientia nostra?  
Quam diu etiam furor iste tuus nos eludet?  
Quem ad finem sese effrenata iactabit audacia?* (Zizeron)

Noiz arte, Katilina, abusatu behar duzu gure pazientziaz?  
Noiz arte zure zorotasun horrek barre egin behar du gutaz?  
Noiz joko du azkena zure ausarkeria galgagabe horrek?

– Herriko eskolan bertan ere, testu mordo ikaragarria ikasten genuen buruz. “*Los cabos de España son: Machichaco en Vizcaya, Ajo en Santander...*”. Eta denak. “*Los ríos de España son: El Miño, el Duero...*”. Eta denak. Elizan ere berdin, orduan “dotrina” esaten zitzaion katezismoan. “*Jaungoikoaren legeko aginduak hamar dira. Lehenengoa, Jaungoikoa maitea izatea. Bigarrena, Jaungoikoaren izena alperrik ahotan ez hartzea...*”. Eta denak. “*Kredoa: Sinisten dot Jaungoiko aita ahalguztiduna, zeru-lurren egilea...*”. Eta dena. “*Agur, Erregina, ama errukiorra...*”. Eta dena. “*Los sacramentos de la Iglesia son: primero, bautismo, segundo, confirmación...*”. Eta denak. Dotrina guztia buruz, eta eskolako “Enciclopedia” izen ulertezin hura ere berdin.

Testu hauek eta beste guztiak, ordea, “kantatu” egiten genituen. Errezitaziotik melodiara bitarteko rap antzeko bat. Testu haiek, txiki-txikitatik ikasten hasiak, oraintxe ere hor daude, asko, gure memorian, orduan bezain bizi. Baina orduantxe lez kantatuz izan behar du. Ni neu ez nintzateke gai testu horiek “esateko” edo soilik “errezitatzeko”. Rapeatu egin behar ditut, berez eta sailean etorriko badira.

Honegaz guztiagaz, ez naiz inondik ere ari metodo haiek bindikatzen, baizik musikaren, metrikaren eta errimaren balioa nabarmentzen. Metodo okerrekin ere, prosa bat hain erraz sartzen bazen memorian, pentsa kantuak (musikak) nolako ahala erantsiko duen. Musikari errima eta neurria gehitzen bazaizkio, orduan efikazia beste hainbatean bidertzen da. Horrexegatik dira bertsoak hain ikaserraz.

Buruz ikasten dena merezi duena bada, abantaila handi bat izango da, noski. Badakit nire memoriako “Los cabos de España”, “Jaungoikoaren legeko aginduak” eta horrelako beste testu guztiak orain erdi alferrik daudela nire buruan. Hortxe daude, eta ez naute molestatzen. Nire izate akumulatuaren geruza bat bezala dira. Baina hortxe daude baita Manrique, Virgilio, Horazio, Dante, Zizeron eta beste askoren testuak ere. Eta horiek berritzean, emozionatu egiten naiz oraintxe ere. Ez dakit merezi zuten memorian sartzea, baina merezi dute bertan jarraitzea.

– Musika gregorianoa, bere garaian, iluna eta tristea izan zen niretzat, batez ere kontestuagatik eta edukiagatik. Baina musika zen, eta gerora ohartu nintzen musika ederra zela. Esaterako:

*Tantum ergo sacramentum  
veneremur cernui  
Et antiquum documentum  
novo cedat ritui  
prestet fides supplementum  
sensuum defectui.*

Santo Tomasen *Pange lingua* izeneko poema erligiosoaren sei ahapaldietako bosgarrena da hau. Zortzi-zazpiko neurria eta errima bikoitza daroa. “Hegoatik iparrera” bezala kanta daiteke (*Laurehun herri, mila bertso berri*, 367. or., 8. doinua). Baina euskarazkoak errima bakarra daroa. Hortik bikoitzera, zailtasuna asko handitzen da. Motibo erligioso aparta utzita, ez dago dudarik pieza artistiko bat dela, eta musika gregorianoak sakontasun handia damaiola. Poema latino hori euskararekin txandaturiko konbinazio bat kantatuko dizuet orain, doinu jostari bategaz (*Laurehun herri, mila bertso berri*, 370. or., 18. doinua).

#### TANTUM ERGO

1) *Tantum ergo sacramentum  
veneremur cernui  
Atzo tuntun, egun tuntun  
bihar ere zer guri.*

*Et antiquum documentum  
novo cedat ritui  
Ai zer txukun jan genitun  
teilatuan katu bi.*

2) *Genitori genitoque  
laus et jubilatio  
Deabruet egin naute  
infernuko sozio.*

*Procedenti ab utroque  
compar sit laudatio  
Inork ez du zeru truke  
lumatzerik desio.*

3) *Pange lingua gloriosi  
corporis misterium  
nahi dut mando bat erosi  
saltzen badute inun.  
Sanguinisque pretiosi  
quem in mundi pretium  
Ea galdaran egosi  
eta piztutzen zaigun.*

4) Nobis natus, nobis datus  
ez intacta virgini  
*Goitik behera begiratzuz  
buru hainbat tximini.*  
Sui moras incolatus  
miro clausit ordini  
*Arnasarik ezin hartuz  
ito behar naute ni.*

5) Nobis patri et filio  
seculum secularem  
*Galdu dira Zizilio  
eta Mari Madalen.*

Sicut erat principio  
et nunc et semper amen  
*Jaio eta hil artio  
bizi behar da hemen.*

6) Tantum ergo, cuánto cerdo  
*dabilen inguruan!*  
Prestet fides, no te fies  
*Lapurren liburuan*  
Genitori jende hori  
*jotzen baduk buruan*  
Procedenti, derrepenti  
*Sartuko haiz zeruan.*

Gregoriano eta musika erligioso “derrigortu” haien ondorio on batzuen erakusle gisan, hona euren abiapuntutik garatu nituen bertso-doinu batzuk:

- “Sentimentua sartu zitzaidan”. *Agur sagar beltzeran*, 377. or. 8 (Gregorianoa. “Salve regina”)
- “Lazkao Txikiri agurra”. *Agur sagar beltzeran*, 381. or. (Gregorianoa. “De lamentatione Jeremiae profetae”).
- “Zuhaitzak inoiz, harkaitzak beti”. *Agur sagar beltzeran*, 379. or. (Kanta erligioso baten hasiera).
- “Vivaldiren”. *Agur sagar beltzeran*, 377. or. (Vivaldiren “Gloria”-ko “Domine Deus” pasarte).

## KONKLUSIOA

Umeengan zein helduengan, bertsoan zein beste edozein arlotan, memoria funtsezkoa da. Hortxe dakargu garen eta sentitzen dugun guztia. Bertsolaritzari dagokionez, testu neurtua, errimatua eta kantatua askoz errazago ikasi eta gogoratu ahal izatearen abantaila ahalik gehien probextu behar da. Bertso onak (bat-batekoak zein jarriak) ikasteko eta irakasteko beldurrik ez da izan behar. Memoria ez da espazio fisiko bat, ahalmen bat baizik. Bertso-sorta bat ikasteak ez du esan nahi sorta horren tokia gutxitu denik buruan. Memoria eduki onez betetzen bada, izango da aukera baliatzeko. Bizitzak une asko ekarriko ditu, memoriaren biltegitik tiratu beharrekoak. Asmatuko dira memoria ordezteko nahi dituzuen teknologia guztiak, baina sentimenduak ez dira makinetan gordetzen. Memoria geu gara, geure burua da, eta beragaz gabiltza beti. Memoria horretan eduki atseginak, gozagarriak biltzen badituzue, maiz joko duzue euretara, hortxe baitaude zeuen buruan. Denbora zerbaitegaz bete beharreko bakar uneak asko dira bizitzan. Orduan, denbora pentsakizunez bete dezakezue, itzarrik dagoenak zail baitu ezer ez pentsatzea. Baina baita bete dezakezue denbora hori memorian daroazuen biltegitik. Nik sarritan egiten dut, lokartze zaila sumatzen dudanean, bertso sorta bati heldu eta ekin. Arreta puntu horretan zentratzen duzu, puntua badoa urrunduz-urrunduz, arreta badoa itxiz, ezabatu da puntua, eta lo zaude. Gutxitan lortzen dut bertso sorta amaitzea. Zuk lortu baduzu, heldu berriz sorta berari edo beste bati. Bigarrenak lokartu ez bazaitu, ez dago zereginik. Jaiki zaitez eta segi parrandan.



Amaitzeko, Lazkao Txikiri hilerrian kantatu nion agurra kantatuko dizuet, gorago aipatu dudan gregoriano aireko doinuan. Eta hau ere, nola ez, memoriatik aterako dut, ahalmen horren utilitatearen erakusle.

*Agur, hainbeste poz eman duzun  
Lazkao Txiki maitea!  
Kostako zaigu gure plazetan  
ez zaudela sinistea.  
Ekarleontzat mingarri bada  
zu hilobian uztea  
beste mundua zurekin ez da  
izango horren tristea.  
Zerbait balego desio nuke  
zure ondoan piztea.*